



euskalmendizalefederazioa

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Ezohiko Batzar Orokorra

Eguna: 2018ko abenduaren 1a, larunbata

Ordua: 13:00etan

Lekua: Elgoibar, Makina Erremintaren Institutua

2018ko abenduaren 1ean, larunbatean, 13:00etan hasi da EMFren Ezohiko Batzar Orokorra, Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan.

EMFren lehendakaria, José Ramón Alonso, da batzarreko lehendakaria, eta EMFren idazkariak, Vicente Lópezek, egin ditu idazkari lanak. Era berean, mahaian daude Leire Salazar lehendakariordea, José Antonio Arriola diruzaina, David Alday batzordekidea, Lander Fraile batzordekidea, eta Irati Anda zuzendari teknikoa. Batzarrean da Euskal Kirol Federazioen Batasuneko abokatua ere, Juan Carlos Soto jauna.

Parte-hartzaileak:

Zuzendaritza Batzordeko idazkariak ozen irakurri du Ezohiko Batzarreko parte-hartzaileen zerrenda, eta 42 klub eta 5 kirolari daude bertaratuta edo ordezkaturik; 83 boto dira posible guztira.

Klubak: * Araba: Altzania M.K., Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., Manuel Iradier Txangolari Elkarte, San Ignazio Kluba

* Bizkaia: Aldatz Gora, Alpino Tabira M.T., Artarrai M.T., Artibai M.T., Aurrera M.T., Austarri M.T., Baskonia M.T., Deustuko Menditarrak, Egusentia M.T., Enkarterri M.E., Etorkizuna M.T., Arroletza M.T., Galarreta, Ganguren A.T., Gailurra M.T., Ganerantz M.T., Ganzabal M.T., Goigain M. T., Goiko Mendi, Gorkizko M. E., Itxartu Taldea, Juventus K.E., Munarrikolanda, Turista Barakaldo, Untza M.T.

* Gipuzkoa: Aizkardi M.E., Besaide M.E., Alpino Uzturre Elkarte, Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkarte, Antiguoko Mendizaleen Elkarte, Murruxio M.E., Pagoeta M.E., Talaimendi M.E.

Kirolariak: José Ramón Alonso Rodrigo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Joseba Undurraga, Víctor M. Vivar.

Parte hartu dutenek batzarreko kideen % 25 ordezkatzeko dute.

Aztergai hauek izan dira, GAI-ZERRENDAREN arabera:

1. Aurreko akta onartzea, hala badagokio
2. Lizentzien Araudia onartzea, hala badagokio.
3. Estatutuen aldaketa. Ibilketa nordikoa txertatzea.

Gai-zerrendan jasotako puntuei heldu aurretik, lehendakariak azaldu du zenbait arazo sortu direla Atletismoko Espainiako Errege Federazioaren (RFEA) eta Mendiko eta Eskaladako Espainiako Federazioaren artean, eta puntu berri gisa aztertzea planteatu du.

1. Aurreko akta onartzea, hala badagokio

Aldaketarik edo zuzenketarik baden galdetu da.

Ez da esku-hartzerik izan.

2. Lizentzien Araudia onartzea, hala badagokio.

Lehendakariak gogorarazi die aldaketak gorritz eta txertatutako zatiak berdez biltzen dituen dokumentua igorri zaiela.

Araudiaren proposamenak berori aldatu eta zenbait alderdi txertatu beharri erantzuten dio, ez baitzen barnean jasotzen adingabeak ez lehiatzeari zegokion atala eta zenbait diputazioarekin arazoak sortu baitziren (Bizkaikoarekin eta Gipuzkoarekin, zehazki). 12 urtetik beherakoak ezin dira lehiatu, eta alderdi hori txertatu beharra dago. Haurrek 12 urte betetzen dituzten urtean, aisialdi-txartela federazio-txartel bihurtzeko izapideak egingo dira, eta EMF bera arduratuko da gastuez (urteak iraila baino lehen egiten dituztenen kasuan, aldaketa hilabete horretan sartuko da indarrean, eta geroago eginez gero, dagokion datan egingo da aldaketa).

Inguruabar hori kontuan hartuta, zenbait aldaketa planteatu dira araudian.

ESKU-HARTZEAK:

- Egunsentia kluba

1. eranskinean, izapidetzea elektronikoa izango dela dio, baina eskuzkoa ere jasotzen da.

✓ *Lehendakaria*

Eranskineko okerra zuzenduko dugu.

- Deustuko Menditarrak kluba

2. artikuluan, 2.5 puntuan (*"eskaria lurralde-federaziora bideratu arte ez duela aseguruia izango"*), eta 6. artikuluan (*"lizentziaren baliozkotasuna ematen edo gaitzen den unean hasiko da"*), eskaria bideratzeaz eta lizentzia emateaz edo gaitzeaz hitz egiten da. Noiz hasten da federatzeko izapidea? Izapidea gauzatzen denetik dela jasotzea proposatu du.

✓ *Abokatua*

Aseguruak esan behar du, polizak jasotzen dena hartu behar da kontuan

- Deustuko Menditarrak kluba

2.7 puntuan, “Aldez aurreko osasun azterketaz” hitz egiten da, eta komeniko litzateke lehia dabiltzan kirolariei edo guztiei dagokien zehaztea.

✓ *Abokatu*

Dekretuak dio osasun-azterketa egin beharko dela, eta federazio bakoitzak erabakiko du nori eta zer eskatu. Zuzendaritza-batzordeak ahalmena izango du espezialitate bakoitzean zer osasun-azterketa behar diren eta zer iraupen izango duten zehazten duen txosten teknikoa (osasun-arlokoa) eskatzeko (osasun-txostenaren indarraldian aldaketarik izan bada, kirolariak arduratu behar du horren berri emateaz).

Ez dio nahitaezkoa denik urtean behin egitea.

Zehaztu beharrekoak zehatz jasotzen dituen osasun-txostena behar da.

- Deustuko Menditarrak kluba

8. artikuluan (“Federazio-lizentzien kuotan”), 1. puntuan (Kuotaren banakatzea”) eta 2.ean (“Aseguruaren kuota”): aseguruaren banakatzean, kuota gisa FEDME lizentzia eta Pyrenaica aldizkari sartu dira, eta federazioen banakatze-kuotetakoak izan behar lukete horiek; aseguruaren banakatze-kuotetik federazio-kuotetara aldatzea proposatu du.

- Gailurra kluba (mezu elektronikoz igorriko duela aipatu du)

12. orrialdeko 8.4 puntuan, hauxe esaten da: “*Indarrean den urteko lehen hiruhilekoan argitaratuko da berori*”; polizak urteko lehen hiru hilabeteak baino lehen igorri behar lirateke.

Une honetan, aseguruaren indarraldia klubaren sorta lurralde-federaziora iristen denean hasten da, eta berorren ordainketak baldintzatzen du; proposatzen du berorren ordainketaren mende ez egotea, eta alta emateko eskaera jaso izana nahikoa izatea. Xede horretarako, federatuen plataformak lurralde-federazioetatik EMFra eta aseguru email bat igor dezakeela iradoki du, hala jasota gera dadin.

Horrez gain, federatuari ere email bat igor diezaioten proposatu du, honek ere alta eman zaiola ziurtasunez jakin dezan.

- Bizkaiko kirolaria, Víctor Vivar

Ados dago, eta aurreko esku hartzeen alde azaldu da.

Opor garaietan ixteari dagokionez, aplikazioa zertxobait lehenago itxi behar litzateke, klubek federazioko kide egiteko izapideetan jarraitzen baitute.

Okerrak egin direnean, sorta batean atzera egiteko aukera emateko modua berrikustea proposatu du.

EMFk teknikari eta epaileen erroldarik egin behar duen galdetu du, lizentzietan islatu behar baita hori.

✓ *Abokatu*

Araudia ikuspegi orokorretik idaztea proposatu du, aseguruan izan daitezkeen aldaketen ondorioz aldatu beharrik izan ez dadin. Araudiak zalua eta erraza izan behar du, eta zer dokumentu bidali behar diren, nora, noiz eta nola islatu behar du.

Erraz erabiltzeko moduko tresna izan behar du.

Zuzenbidean, lizentzia jaulkitzen den unetik izango da baliagarria.

- Ganguren kluba

Batzarreko gainerako kideei entzun ondoren, zalantza sortu zaio ea noiz federatzen den pertsona.

✓ *Lehendakaria*

Hori ez da aldatu, baina aseguru-etxean ez da jasota geratuko EMFra iristen den arte. 2018an sortutako arazoan ondorioz, ordainketaren agiria aseguruari lurralde-federaziora iristean iritsiko zaio: 72 ordu baino gehiago iragaten direnean, dagokionari azalpenak eskatuko dizkio aseguruak. Aplikazio berriarekin, funtsezko garai batzuetan (zubiak, Aste Santuak eta uda) itxi egingo da, aurrez garaiz jakinaraziko den arren, eta bildutakoak lasaitu nahi izan ditu, orain arte EMFn federatu gabe inor ez dela utzi gogoraraziz.

✓ *Lehendakariordea:*

Lurralde-federazioetako lehendakariari epaile eta teknikarien zerrendak eskatu zaizkiela gogorarazi du, eta batzar honen datan, soilik lurralde batek bidali du zerrenda hori, eta ez osorik.

✓ *Lehendakaria*

Konpromisoa hartu du polizak aurrez eskegitzeko, sinatzen direnean.

BOZKETA:

BAI: 80 boto, % 96,39

Altzania M. K., Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., Manuel Iradier Txangolari Elkartea, San Ignazio Kluba, Aldatz Gora, Alpino Tabira M.T., Artarrai M.T., Artibai M.T., Aurrera M.T., Austarri M.T., Baskonia M.T., Deustuko Menditarrak, Egunsentia M.T., Enkarterri M.E., Etorkizuna M.T., Arroletza M.T., Galarreta, Ganguren A.T., Gailurra M.T., Ganerantz M.T., Ganzabal M.T., Goigain M.T., Goiko Mendi, Gorlizko M.E., Itxartu Taldea, Munarrikolanda, Turista Barakaldo, Untza M.T., Aizkardi M. E., Besaide M.E., Alpino Uzturre Elkartea, Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkartea, Antiguoko Mendizaleen Elkartea, Murruxio M. E., Pagoeta M.E., Talaimendi M. E., José Ramón Alonso Rodrigo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Joseba Undurraga, Víctor M. Vivar

EZ: 0 boto, % 00,00

Abstentzioa: 3 boto, % 3,61

Juventus K.E.

Guztira: 83 boto

Lizentzien Araudia onartu egin da, gehiengoz.

3. Estatutuen aldaketa. Ibilketa nordikoa txertatzea.

Ibilketa nordikoa EMFren diziplina berri gisa txertatzeko egin den prozeduraren laburpea egin du lehendakariak. Eusko Jaurlaritzak eskaria onartuta eman zaio amaiera prozedura horri. EMFren Estatutuetako 1. artikulua eguneratzea ekarri du diziplina hori txertatzeak:

“Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinarekin, kirol modalitateei eta diziplinei buruzkoarekin, bat etorrita, honako hauek dira mendiko kirola osatzen duten diziplinak: orientazioa, mendiko eskia, mendi lasterketak, eskalada haitzetan, kirol eskalada, alpinismoa, mendiko ibilaldiak, martxak, arroilen jaitsierak eta espeleologia.”

Bi aukera aurkeztu dira:

1. Diziiplina eranstea, beste bat zerrendatuz, beraz.

2. Guztia dekretu honetan edo ondorengoetan argitaratutako diziplinetan biltzea.

Bigarren aukerak hartuz gero, ez dago estatutuak berriro aldatu beharrik, etorkizunean beste diziiplina bat txertatzen bada edo lehendik daudenetako bat desagertzen bada; horregatik, bigarren aukeraren alde egin da. Abokatuak ere aukera horren alde egin du, eta artikulu horretarako, honako testu berri hau proposatu du:

“Urtarrilaren 31ko Dekretuaren eranskinean, kirol modalitate eta diziplinei buruzkoan, biltzen direnak”.

BOZKETA:

BAI: 79 boto, % 95,18

Altzania M. K., Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., Manuel Iradier Txangolari Elkartea, San Ignazio Kluba, Aldatz Gora, Alpino Tabira M.T., Artarrai M.T., Artibai M.T., Aurrera M.T., Austarri M.T., Baskonia M.T., Deustuko Menditarrak, Egunsentia M.T., Enkarterri M.E., Etorkizuna M.T., Arroletza M.T., Galarreta, Ganguren A.T., Ganerantz M.T., Ganzabal M.T., Goigain M.T., Goiko Mendi, Gorlizko M.E., Itxartu Taldea, Munarrikolanda, Turista Barakaldo, Untza M.T., Aizkardi M.E., Besaide M.E., Alpino Uzturre Elkartea, Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkartea, Antiguoko Mendizlaeen Elkartea, Murruxio M. E., Pagoeta M.E., Talaimendi M. E., José Ramón Alonso Rodrigo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Joseba Undurraga, Víctor M. Vivar

EZ: 0 boto, % 00,00

Abstentzioa: 4 boto, % 4,82

Gailurra M. T., Juventus S.D.

Guztira: 83 boto

Estatutuak aldatzea onartu da gehiengoz.

4. Mendi-lasterketak

2018ko uztailaren 14an eta 15ean lehendakarien arteko bilkuran zer gari landu zituzten azaldu du labur-labur lehendakariak, eta RFEAren eta FEDMEren artean mendi-lasterketen inguruan sortutako gatazkari buruzko xehetasunak eman ditu; halaber, ordutik hona izan diren gertaerak ere azaldu ditu.

Funtsean, dirutza handi samarra mugitzen dute mendi-lasterketek, eta, gaur egun, FEDMEko Kirol Kontseilu Gorenaren barnean biltzen diren diziplinatako bat osatzen dute. Baina RFEAk diziiplina gisa atletismoaren barnekoa izan dadin nahi du, eta, ildo horretatik, azken horrek hala aitortu dadin lortu du, Kirol Kontseilu Gorenaren beraren beste xedapen batzuei kontra eginez; kontseilu horren arabera, ezinezkoa da diziiplina bera bi federazio desberdini esleitzea. Jada egingo du bere bidea gatazka horrek: zenbait autonomia-erkidegotan, mendiko eta atletismoko federazioen arteko liskarrak auzitegietara iritsi dira, eta bataren zein bestearen aldeko epaiak eman dituzte auzitegiek. Ez da hori Euskal Herriaren kasua: mendi-lasterketek izen handi samarra dute hemen, eta are gehiago, antolatzailea EMFri atxikitako klub bat denean.

Aintzat hartuta mendi-lasterketek zer garrantzi duten babesleak lortzeko orduan ez ezik Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak lortzerakoan, beharrezkotzat jo da Kirol Kontseilu Gorenaren erabakiaren aurka errekurtso

bat jartzea: errekurtsua FEDMEk berak ere jarriko duen edo ez zehazteko orduan, kontraesana adierazten duten berriak sortu dira, eta, errekurtsorik aurkeztu behar ez badu, autonomia-erkidego gehienak hala egiteko aukera aztertzen ari dira. Batzarrari baimena eskatu zaio, ekimen horri baiezkoa emateko (hala egitekoetan, 17 autonomia-erkidegoetatik 14k egingo genuke).

Auzitegietan errekurtsua aurkezteko beharrezkoak diren baldintzen artean, hauek biltzen dira, besteak beste:

- Federazioaren Batzarraren akordioa: Administrazioarekiko Auzi Errekurtsua aurkezteko erabakia jasotzen duena (abenduarien 4an amaitzen da aurkezteko epea)
- Abokatua eta prokuradorea izendatzea: prokuradorearen kasuan, auzietarako ahalordeak eman behar litzaizkioke.

✓ *Abokatua*

Bada Kirol Kontseilu Gorenaren ebazpen bat. Juridikoki, ez da beharrezkoa auzitegietara jotzea, emaitza bera izango da, auzitegietara jo edo ez jo; baina ados ez bagaude atletismo elkartearekin ez eta Kirol Kontseilu Gorenarekin ere, gure interesak babestu behar genituzke. "Politikoki" balioetsi behar litzateke errekurtsua aurkezteko aukera, ikuspegi praktikotik, dena den.

Bestalde, gastuak ekarriko ditu horrek, abokatu eta prokuradorearekin lotuta; 1000 € inguru.

– Gailurra kluba

Lasterketei eusteak zer onura ditu EMFrentzat?

✓ *Lehendakaria*

Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza ematen du Mendi Lasterketen euskal selekziorako, eta diziplina hori kentzen badigute, nabarmen murriztuko litzateke diru-laguntzaren zenbatekoa, eta beste baliabide batzuetatik atera beharko litzateke partida; diziplina horretan, gaur egun Espainiako txapeldunak gara maila absolutuan, bai emakumeei eta bai gizonei dagokienean.

BOZKETA:

BAI: 76 boto, % 91,57

Altzania M.K., Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., Manuel Iradier Txangolari Elkartea, San Ignazio Kluba, Aldatz Gora, Alpino Tabira M.T., Artarra M.T., Artibai M.T., Aurrera M.T., Austarri M.T., Baskonia M.T., Deustuko Menditarrak, Egunsentia M.T., Enkarterri M.T., Etorkizuna M.T., Arroletza M.T., Galarreta, Ganguren A.T., Gailurra M.T., Ganerantz M.T., Ganzabal M.T., Goigain M.T., Goiko Mendi, Gorlizko M.E., Itxartu Taldea, Munarrikolanda, Turista Barakaldo, Untza M.T., Aizkardi M. E., Besaide M. E., Alpino Uzturre Elkartea, Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkartea, Antiguoko Mendizaleen Elkartea, Pagoeta M.E., José Ramón Alonso Rodrigo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Joseba Undurraga, Víctor M. Vivar

EZ: 0 boto, % 00,00

Abstentzioa: 7 boto, % 8,43

Juventus K.E., Murruxio M. E., Talaimendi M. E.

Guztira: 83 boto

Administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztea erabaki da gehiengoz.

✓ *Abokatua*

BMFk gai-zerrendari erantsitako puntuei dagokienez, hurrengo bileran aztertzea proposatu du, dentsitateagatik eta une horretako giro ona errespetatzeagatik.

– Bizkaiko kirolaria, Víctor Vivar

Lehen puntua beste bilerara eraman daiteke, baina gainerakoa orain aztertu behar da, multzo osoan edo puntuz puntu.

BMFren proposamenaren euskarri diren estatutuetako oinarriak aurkeztu ditu.

2. puntuan, aurrekontuak EMFko lehendakariak eta lurralde-federazioetako lehendakariak edo horien ordezkariak osatutako batzorde batek negoziatzea eta onar ditzan batzarrean erabakitzea eskatu du.

ESKU-HARTZEAK:

– San Ignacio Basotxo kluba

Proposamena erabat ulertu ez badu ere, uste du lurralde-federazioetako batzarrek aurkeztu behar luketela proposamena.

✓ *Abokatua*

Aurrekontuen zati bat lurralde-federazioetako lehendakariekin soilik negoziatzeak beste batzuei adierazpidea kentzen die, haren ustez. Horrela lan egin daiteke, lehendakarien bidez, edo horien ordezkarien bidez, baina ezin da horrela erabaki.

– Ganguren kluba

Aurrekontuak erabakitzen dituen organo bakarra zuzendaritza-batzordea da, eta lurralde-federazioetako lehendakariak daude hor; eta batzarrak onartzen ditu. Baina, gure lehendakariak dioenez, berari ez diote horien berririk eman, eta nahiz eta ez dudan zertan sinetsi hark esandakoa, ez dut zertan sinetsi EMFko lehendakariak dioena ere; eta idatzi hori sinatu dugunok hori argitu nahi dugu, besterik ez.

– Bizkaiko kirolaria, Víctor Vivar

Uste du bozkatu beharreko puntu hori irakurri egin behar dela, edo, gutxienez, azaldu egin behar dela.

– San Ignacio Basotxo kluba

Zer gertatzen da adostasunik ez badago?

✓ *Abokatua*

Ezin duzue erabaki.

– Bizkaiko kirolaria, Víctor Vivar

Zuzendaritza-batzordean, 6 boto daude 3ren kontra, eta haien aldekoa aterako da beti.

– San Ignacio Basotxo kluba

25 urte daramatzat batzarretara etortzen, eta horrelaxe izan da beti; proposamen honetarako, zuzendaritza-batzordearen egitura aldatu behar litzateke.

– Gailurra kluba

Beti da beharrezkoa adostasuna lortzea, gero batzarren berresteko.

– San Ignacio Basotxo kluba

Hau ez da batzarrerako, zuzendaritza-batzordean jarri behar dute ados.

✓ *Lehendakariordea:*

Víctorrek esan du hiru lurralde-federazioek ezetz badiote, ez direla onartu behar.

– Klub bat (tribunara joan ez denez, ez da identifikatu)

Manipulatzeaz akusatu du abokatua. Zuzendaritza-batzordeko batzuek gogoia dutena egiten dute, lurralde-federazioak gutxietsi nahi dira.

✓ *Abokatua*

Teknikoki, aukeratutako organoek proposamenak planteatzen dizkiote batzarrari.

Lurralde-federazioetako lehendakariak beren batzarren ordezkaritza ekarri behar lukete.

– Bizkaiko kirolaria, Víctor Vivar

Informazioan, lurralde-federazioetako lehendakariak gutxiesten dira.

✓ *Lehendakaria*

Dokumentazioa igortzen da, eta lurralde-federazioetako lehendakariak ez dira joan zegozkien bileretara.

✓ *Lehendakariordea:*

Lurralde-federazioetako hiru lehendakariak eta EMFko lehendakaria ez dira zuzendaritza-batzordea.

– Bizkaiko kirolaria, Víctor Vivar

Lurralde-federazioetako lehendakariok federatu guztiak ordezkatzeko ditugu.

✓ *Abokatua*

Hori ez da horrela.

– Baskonia kluba

Zergatik ez dira bidali batzarraren % 5ek baino gehiagok proposatutako zuzendaritza-batzordeko puntuak?

✓ *Lehendakaria*

Proposamenen lege-alderdiak aztertu ondoren, abokatuak jokatu dugun moduan jokatzeko gomendioa eman digu.


✓ *Abokatua*

Informazioa zergatik ez den igorri azaldu du. Bilera bat adostu da.

Azalpenen tonuak eta formak kontrol orori ihes egiten diela ikusita, amaitutzat eman da batzarra, 14:51n.



Sinadura: EMFren idazkaria
VICENTE LÓPEZ



EMFren lehendakariak ontzat emana
JOSÉ RAMÓN ALONSO